

## B2 MAILA

### Mintzamen-proba

- 1. ZATIA. Aztertzailearen **galderak**: minutu 1 ikasleko
- 2. ZATIA. **Gaia** garatu: 2+1 min ikasleko (10 min gaia prestatzeko)
- 3. ZATIA. Bat-bateko **elkarrizketa**: 2:30 min ikasleko

**Guztira 15 bat  
minutu  
(bikoteko)**

**Prestatu behar duzun gaia:**

### 224. gaia: **Zeren bilduma egin**



#### Egoera

Liburu-denda edo kiosko batera joan eta bildumak egiteko ideia asko aurki ditzakegu: kromoak, mineralak, zigiluak, txanponak, miniaturazko kotxe edo panpinak... Garai batean oso normala zen eta gaur egun ere jendeak jarraitzen du bildumak egiten.

#### Egitekoa

Azaldu zer iruditzen zaizun bildumak egitea eta zein izan daitekeen egiteko arrazoia. Adierazi, zure iritziz, gaur egun nork egiten dituen bildumak: umeek, gazteek, helduek... Zure inguruko norbaitek edo zeuk egin duzue inoiz bildumarik? Nolakoa? Adierazi gaur egun bilduma egitekotan, zerena egingo zenukeen eta zergatik.

*Gogoratu 2 minutu inguru duzula hitz egiteko.*

*Amaieran, aztertzaileak beste azterketariari galderaren bat egingo dio zure gaiaz, eta hark bere azalpena bukatzen duenean, zuri galdetuko dizu.*

**EZ IDATZI EZER ORRI HONETAN**

